



**EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 8koa, Hezkuntza sailburuordearena, 2018ko abenduaren 31koa Unibertsitate aurreko irakasmaitako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko diru-laguntzak esleituz (EIMA 2.0) emandako Ebazpenean egindako errakuntza zuzentzen duena.**

2018ko abenduaren 31ko Unibertsitate aurreko irakasmaitako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko diru-laguntzak esleituz emandako Ebazpena (EIMA 2.0), berraztertu eta gero, zera ikusi da: aipaturiko Ebazpen horren III. eranskinean okerreko espedientea jaso dela 3 proiektu aurkezteagatik (hirurek betetzen dituzte deialdiak ezarritako puntuazio minimoak) diru-laguntzetatik kanpo gelditu direnen artean. 2018/004JP espedientea dago jasota bertan eta espediente horren orde, 2018/003 JP espedientea egon beharko luke.

Egindako errakuntza zuzentze aldera, berezkoak ditudan eskuduntzei eta, era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 109.2 artikuluan, administrazio-jardueran egindako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak ofizioz zuzentzeko ematen didan ahalmenari jarraiki, zera

#### EBATZI DUT:

Unibertsitate aurreko irakasmaitako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko diru-laguntzak esleitzen dituen (EIMA 2.0) 2018ko abenduaren 31ko Ebazpeneko III. eranskinean egindako errakuntza modu honetan zuzentzea:

Honela dio:

#### III. ERANSKINA

#### LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Hurrengo horiek kanpoan gelditu dira deialdiko 15. artikulua betetzen ez dutelako. Hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena. Eskatzaile hauek 3 proiektu aurkeztu dituzte eta hirurek betetzen dituzte deialdiak ezarritako puntuazio minimoak. Beraz, 3 horietatik, orotara puntuazio txikiena lortu duten proiektuak kanpoan gelditu dira:

Jabetza Pribatua		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2018/004 JP	Elkar-ikastolak zerbitzuak SL	EKI LH6. Ingurunea, Gizarte eta Natur Zientziak e-liburua
2018/012 JP	Euskal Herriko Ikastolak Scoop Europea	EKI LH 6 Matematika



Honela esan behar du:

### III. ERANSKINA

#### LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Hurrengo horiek kanpoan gelditu dira deialdiko 15. artikulua betetzen ez dutelako. Hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena. Eskatzaile hauek 3 proiektu aurkeztu dituzte eta hirurek betetzen dituzte deialdiak ezarritako puntuazio minimoak. Beraz, 3 horietatik, orotara puntuazio txikiena lortu duten proiektuak kanpoan gelditu dira:

Jabetza Pribatua		
ESPEDIENTEA	ENTITATEA	IKASMATERIALAREN IZENBURUA
2018/003 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak SL	EKI DBH2. Matematika e-liburua
2018/012 JP	Euskal Herriko Ikastolak Scoop Europea	EKI LH 6 Matematika

#### Errekurtsoak

Administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa egin dezakete interesatuek, Hezkuntza sailburuaren aurrean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 8an.

Miren Maite Alonso Arana  
 Hezkuntza sailburuordea